




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

Item liberatuak 2010



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

EZ NAGO GUSTORA NIRE GELAN

Jonek gaur hau idatzi du bere egunerokoan:

Gure gelan bada Mikel izeneko mutil bat, ni etengabe zirikatzen nauena. Nik zerbait esaten dudanean, iseka egiten dit, txepela eta ahula naizela esanez. Horrek ni asko mintzen eta haserretzen nau, baina ez naiz ausartzen ezer egitera. Beldur naiz beste ikaslagunak ere ez ote diren gauza bera egiten hasiko. Hobe izango da isilik egotea, bestela galtzaile neu atera naiteke eta.

Gainerako ikasle gehienek irribarre egiten dute eta ez diote ezer esaten. Txantxetan dagoela eta, barre egiten didate eta ez dute ezer esaten nire defentsan.

Irakasleak badaki zer gertatzen den, baina ez daki oso ondo zer egin. Alde batetik ez dio garrantzi handirik eman nahi, baina beste aldetik ez du nahi horrelakorik bere gelan gertatzea.



1. Joni lagundu nahi diogu, baina horretarako gauza batzuk jakin behar ditugu:

Zein da arazoa?

- A. Jonek gelan ez dauka lagunik.
- B. Jon ez da irakaslearen ikasle kuttuna.
- C. Ez dago arazorik, normala da horrelakoak gertatzea.
- D. Mikelek Jon etengabe zirikatzen du eta Jon ez da ausartzen ezer egitera.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3. dimentsioa: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 8. azpi-konpetentzia: Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Gertaera ezagun batean zein den arazoa identifikatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Mikelek Jon etengabe zirikatzen du eta Jon ez da ausartzen ezer egitera.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
HASIERAKO MAILA

2. Nola definitu dezakegu Jonek arazoaren aurrean izan duen jokaera?

- A. Lasaia.
- B. Erasotzailea.
- C. Pasiboa.
- D. Azkarra.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 3. dimentsioa: Bizikidetzeta.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 8. azpi-konpetentzia: Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Jokaera mota desberdinak bereizten ditu.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: C. Pasiboa.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
ERDI-MAILA

3. Zein ondorio izan dezake Jonen jokaerak?
- A. Dagoen bezala geratuko da, baina egoerak txarrera behintzat ez du joko.
 - B. Mikelek berarekin duen jokaera bera, beste batzuek ere izan dezakete.
 - C. Jonek pertsona ona dela erakusten duenez, denok maitatuko dute.
 - D. Jonek ez badu ezer egiten, Mikel aspertuko da eta bakean utziko du.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 3. dimentsioa: Bizikidetzeta.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 8. azpi-konpetentzia: Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Jokaera pasiboak norberarengan izan ditzaketen ondorioak identifikatzen ditu.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Mikelek berarekin duen jokaera bera, beste batzuek ere izan dezakete.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
ERDI-MAILA

4. Zure ustez, zer egin beharko luke irakasleak?
- A. Ezer ez, bestela arazoa handitu daiteke.
 - B. Jon gelaz aldatu.
 - C. Jonekin eta Mikelekin hitz egin, eta baita ere gelakideekin.
 - D. Tutoreari esan, berak zerbait egiteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 3. dimentsioa: Bizikidetza.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 8. azpi-konpetentzia: Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Gatazka bati irtenbidea emateko inplikatu guztiak izaten ditu kontuan.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: C. Jonekin eta Mikelekin hitz egin, eta baita ere gelakideekin.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
HASIERAKO MAILA

SARAJEVO, URTE BATZUK GEROAGO

Bosnian mendeetan zehar erlijio eta ohitura kultural ezberdinetako pertsonak bizi izan dira. Hala ere, Bosnian gerra zibila izan zen 1992 eta 1995 bitartean, Jugoslaviaren zati bat zenean. Harrez geroztik estatu independentea da eta hiriburua Sarajevo da.

1. Bosnia gaur egun hiruko presidentzia duen estatua da. Horrek esan nahi du erabakiak hartzeko hiru pertsona daudela: musulman bat, serbiar bat eta kroaziar bat. Hala ere, oraindik badira banaketa etniko sakonak eta mesfidantza agerian dago herrialde osoan.

Herrialdea bi errepublikatan banatuta dago: alde batetik, gehiengo musulmana eta kroaziarra duena eta, bestetik, gehiengo serbiarra duen errepublika.

Zein mapak adierazten du ongien Bosniaren gaur egungo egitura politikoa?



A



B



C




D

- A mapa.
- B mapa.
- C mapa.
- D mapa.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 3. dimentsioa: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 4. azpi-konpetentzia: Informazioa eta komunikazioa.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Informazio politikoa dagokion kartografia irudikapen egokiarekin lotzen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. B mapa.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
HASIERAKO MAILA

Aztertu arretaz hurrengo mapa. Gerra aurreko Bosniako talde etniko nagusiak adierazten ditu.











2. Hurrengo ondorioen artean, zein da egokia mapa horretarako?

- A. Banaturik bizi ziren. Eskualde bakoitzeko pertsona guztiak erlijio berekoak ziren.
- B. Eskualde guztietan zeuden erlijio ezberdinetako pertsonak, nahiz eta eskualde bakoitzean erlijio bat nagusia izan.
- C. Oso nahastuta zeuden. Inongo eskualdetan ez zen gertatzen pertsonen erdia baino gehiago erlijio berekoak izatea.
- D. Erlijio katolikoa gehiengoarena zen, kroaziarrak gehiengoa direlako ia eskualde guztietan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3. dimentsioa: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 8. azpi-konpetentzia: Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Erlijioen eta kulturen aniztasuna gatazken jatorriarekin lotzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. B mapa.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
HASIERAKO MAILA

Behean, ezkerreko zutabeen (letrez adierazita) erlijio-ikur batzuk dituzu eta eskuineko zutabeen (zenbakiz adierazita) irudiak:

 Islama	A	1	
 Katolizism oa	B	2	
 Judaisimo a	C	3	
 Hinduism oa	D	4	

3. Azaldu zein den erlazio zuzena:

- A. A-2 B-4 C-1 D-3.
- B. A-3 B-4 C-2 D-1.
- C. A-1 B-3 C-2 D-4.
- D. A-4 B-1 C-3 D-2.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 3. dimentsioa: Gizarte-errealitea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2. azpi-konpetentzia: Gizartea: funtzionamendua, lorpenak, erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Erlijio garrantzitsu batzuen sinboloak identifikatzen ditu.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: A. A-2 B-4 C-1 D-3.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
HASIERAKO MAILA

Danielek eta Anek azken urteotan gertatu diren gatazkei eta gerrei buruzko unitate didaktiko bat landu dute. Baina ez daude ados zenbait gatazkaren kausei buruz.



4. Eztabaidan zehar hurrengo baieztapenak sortu dira. Adieraz ezazu **ZEINEKIN** zauden **ADOS** eta **ZEINEKIN EZ**.



	ADOS NAGO	EZ NAGO ADOS
a. Elkarbizitza posiblea da, gainerako pertsonen pentsamoldea errespetatzen baldin bada.		
b. Zuzena da okerreko erlijioa duten pertsonen egiazko erlijioa inposatzea.		
c. Erljio ezberdinetako pertsonak elkarrekin ondo konpon daitezke, erlijioa pertsonen eremu pribatuko gauza delako.		
d. Erljio askok gauza komun asko dituzte.		
e. Pertsona guztiek eduki behar dute erlijio bat, edozein delarik ere. Erljiorik ez duten pertsonak ez dira herritar onak.		
f. Pertsona ezberdinak elkarrekin bizitzeak arrazakeria eta indarkeriazko jokaerak sortzen ditu.		
g. Arrazakeria beste kulturak ez ezagutzetik sortzen da eta pertsona ezberdinei diegun beldurretik.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Dimentsioa: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Kultura desberdina duten pertsonen arteko bizikidetzaren aldeko argudioak eta aurreiritzietan oinarritutakoetatik bereizten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	ADOS NAGO	EZ NAGO ADOS
a. Elkarbizitza posiblea da, gainerako pertsonen pentsamoldea errespetatzen baldin bada.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
b. Zuzena da okerreko erlijioa duten pertsonen egiazko erlijioa inposatzea.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
c. Erlijio ezberdinetako pertsonak elkarrekin ondo konpon daitezke, erlijioa pertsonen eremu pribatuko gauza delako.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
d. Erlijio askok gauza komun asko dituzte.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
e. Pertsona guztiek eduki behar dute erlijio bat, edozein delarik ere. Erlijiorik ez duten pertsonak ez dira herritar onak.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
f. Pertsona ezberdinak elkarrekin bizitzeak arrazakeria eta indarkeriazko jokaerak sortzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
g. Arrazakeria beste kulturak ez ezagutzetik sortzen da eta pertsona ezberdinei diegun beldurretik.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI MAILA